

Babes publikoko etxebizitza – Betekizunak

Diru-sarrerak

Babes publikoko etxebizitzaren esleipendunak diren pertsonak edo bizikidetzaren unitateek gutxieneko batzuen eta gehieneko batzuen arteko diru-sarrera batzuk eduki behar dituzte, ondorengo koadroaren arabera.

Kontuan hartu behar da kontratuaren titularrak izango diren familia-unitateko kide guztien diru-sarrerak zenbatuko direla. Adibidez, senar-emazte batzuen kasuan, biek kontratuaren nahitaezko titularrak izan behar dutenez gero, bikotea osatzen duten bi pertsonen diru-sarrerak batu beharko dira.

GUTXIENEO DIRU-SARRERAK:

KASU OROKORRA	KASU BEREZIAK (*)
3.000 € (etxebizitza sozialak)	
9.000 € (babes ofizialeko etxebizitzak)	0 €

(*) Mugikortasun urri iraunkorra eta desgaitasun psikikoak dituzten pertsonak eta etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeak.

Honako hauek hartzen dira mugikortasun urriko pertsonatzat:

- Gurrpil-aulkian dauden pertsonak.
- Ibiltzeko ezinbestez bi bastoi behar dituzten pertsonak.
- Minusbaliotasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskineko D) letratik H) letrara bitarteko ataletan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak.

GEHIENEO DIRU-SARRERAK:

Gehieneko diru-sarrerak familiako kideen eta diru-sarrera guztien gutxienez % 20ko ekarpena egiten duten pertsonen kopuruaren arabera haztatzen dira.

FAMILIA-UNITATEKO KIDEAK	ARAUBIDE OROKORREKO BOE-AK			BOE SOZIALAK		
	DIRU-SARREREN HARTZAILEEN KOPURUA			DIRU-SARREREN HARTZAILEEN KOPURUA		
	HARTZAILE 1	2 HARTZAILE	3 HARTZAILE edo gehiago	HARTZAILE 1	2 HARTZAILE	3 HARTZAILE edo gehiago
KIDE 1	39.000	----	----	25.000	----	----
2 KIDE	41.053	45.614	----	23.158	25.731	----
3 KIDE	43.333	48.148	50.980	24.444	27.160	28.758
4 KIDE	45.882	50.980	53.979	25.882	28.758	30.450
5 KIDE	52.000	57.778	61.176	29.333	32.593	34.510
6 KIDE	60.000	66.667	70.588	33.846	37.607	39.819
7 KIDE	70.909	78.788	83.422	40.000	44.444	47.059

DOKUMENTAZIOA:

Funtsean, ez da beharrezkoa diru-sarrerari buruzko dokumentazioa aurkeztea. Beharrezkoa izanez gero, eskatu egingo da.

Honako kasu hauetan baino ez da beharrezkoa izango justifikazio-dokumentazioa:

- Zergak Gipuzkoatik kanpo ordaintzen badituzte: PFEZaren aitortpena.

Nolanahi ere, ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioak edo antzeko diru-sarrerak jasotzen badira (sorospenak, bekak eta abar), haien ziurtagiria aurkeztu beharko da.